

Noaia!!




Otsailaren 25ean,
Inauteri Jaia



Oztopo guztien gainetik, lanean jarraitzeko prest

ERRETEGIA
ARRATZAIN
TOLARE-SAGARDOEGIA



27an irekitzen dugu. Egunero irekia.
arratzain@telefonica.net

Arratzain Zahar Baserria · Telf: 943 36 66 63 · 20170 USURBIL



Lehiaketa

Film laburren emanaldia Film laburren emanaldia
1xotx ... Sargile ... Hala 1xotx ... Sargile ... Hala
40 ezet / ... Hauspu 50 40 ezet / ... Hauspu 50
MARTXOAK 9an MARTXOAK 9an
20:00etan Sute 20:00etan Sute

Martxoaren 9an, film laburren proiektzioa antolatu du NOAIA!k. Buskal Herrian azken boladan egin diren film interesgarrienak ikus ahal izango dira Sutean. Sarrera bat eskuratu nahi baduzu, e-mail bat bidali erredakzioa@noaia.com helbidera eta partehartzaile guztien artean lau sarrera bikoitz zozketatuko ditugu.

Bidali erantzuna e-mailez
erredakzioa@noaia.com.
Postaz Borda Berri 3 Eguzkitzaidea
20170 USURBIL (Gipuzkoa).



14. Urteurren Ospakizuna 2006 Otsailak 18

Araeta jatetxeak bere 14. urtebetetzea ospatuz antolatutako festa afarira gonbidatzen zaituzte, aldi berean bere bezero guztien fidelotasuna eskertuz.

Zuzeneko musika ikuskizunak

Sagardotegian, 22.30etik 00.30era
Trikitixa zuzenean

Karta jangelan, **Stefan Nikolov**
musikari eta kantautore handia

Sagardotegi menua: 23€ + BEZ Degustazio menua: 34,95€ + BEZ

Berridi bidea 22 / 20160 ZUBIETA Telf: 943 362049 - 943 366642 / Fax: 943 366073 www.araeta.com

Txirrikitutik !!

Pasa den asteburuan Auzitegi Nazionaleko Fernando Grande-Marlaskaren aginduz, Guardia Zibilak, Ertzaintzaren babesarekin, Aitzaga Elkartea eta Taberna itxi zituen. Une latzak bizi izan ziren baina usurbildarrak ez ziren kikildu eta indar errepresiboen aurrean tinko mantendu ziren. Aitzaga Elkartea abertzale eta ezkertiarren bilgune izateko sortu zen; elkarte gastronomikoa izateaz gain, kultur eta kirol ekimen askoren sustatzailea ere izan da. Herriko ekitaldietan, jaietan eta beste elkarteekin batera ekintza askoren partaide izan da; era berean beste talde batzuen jardueren azpiegitura ere izan da: Sagardo Eguna, Ikastolaren Eguna, Erle Eguna... Aitzaga beti herriarrei irekia egon da eta horrela izaten jarraituko duela ziur nago. Goiko argazkia: Joxean Labaienek ateratakoa da. 1995eko Santixabelak, Aitzagako ateak zabalik. Bertan Mikel Elexpe Aitzagako tabernatik asto batean gainean ateratzen ikusten dugu. Taberna barrukoei agurtu, kalimotxo katxia eskatu eta berriz ere kalera astoarekin.



Argazkilaria: Joxean Labaien, 1995eko Santixabelak, Kaleberri

Zalao Arnaiz Ibarguren

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 Tlf.: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zalao Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Danberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Nerea Korta.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilibidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

UDALAK SINATU DITUEN HITZARMENAK **5. OR.**

ARANTXA MANTEROLAREKIN SOLASEAN **6. OR.**

INAUTERIAK BEGIBISTAN **8. OR.**

Otsailaren 25ean ospatuko da Inauteri Jaia Usurbilen. Bezperan, Udarregiko ikasleak izango dira mozorrotzen lehenak.



JABIER PIKABEAREN LIBURU AURKEZPENA **10. OR.**

ZUMARTEKOAK BIKAIN PIANO JAIALDIAN **12. OR.**

ORIAKO JAITSIERAN, ORIO NAGUSI **14. OR.**

MIKEL LANDA, TRINKETEAN TXAPELDUN **15. OR.**

AIKO HARRIETARA IRTEERA **17. OR.**

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Usurbilgo Udalak



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria



Euskal presoak

Euskal Herra!

Zutabea !!



LUIS ARANALDE

Islamofobia?

Azken egunotan Danimarkako marrazkigile batek bineta “biraoitiak” argitaratu ditu egunkari batean. Mahomaren karikaturak egin ditu eta herri musulman askotan protestak eta iskanbilak sortu dira, errespetu falta egon dela eta. Danimarkaren eta Europaren aurka egin dituzte manifestaldi horiek. Bat-batean, honako burutapen hauek datozkit afera honen gainean:

1. EZJAKINTASUNA

Asko miresten dudan teologo batek dio: “Europar ezjakintasun entziklopedikoa dago Islamari buruz”. Ia ezer ez dakite europarrek erlijio horretaz eta dakiten apurra deformatua. Hiruzpalau topiko edo estereotipotan oinarriturik daude; ezjakin bezain deskalifikatzaileak dira europarrak.

Lehen ere aipatu nuen NOAUA! aldizkarian erlijio kulturalaren garrantzia irakaskuntza alorrean, “Primer viernesik ez, erlijio kultura bai” zuen izenburua.

Erlijio integrista eta fanatikotzat salatzen da Islama. Ezaugarri fundamentalista samarrak baditu, erlijio guztiek bezala, baina ez oinarri-oinarrian. Fundamentalismoa perbertsioa eta desbideraketa besterik ez da erlijio guztietan, askotan beren buruzagiek bultzatutakoa.

Ezjakintasun honen adierazgarri bat: “yihad” hitzaren itzulpena okerra da oro har; gerra saildua esan nahi du, baina, norberak bere grina txarren aurka egin behar duena batez ere. Hori da gerra santu handia, eta ttipia, aldiz, musulman zintzo guztiek egin behar duten misiolaritza lana beren erlijioa zabaldu eta defendatzeko. Bigarren esanahi honetaz baliatu dira buruzagi erlijioso-politiko asko beren menpekoak borroka armatura bidaltzeko.

2. PROBOKAZIOA

Fanatiko ameslari gisa irudikatu dute Mahoma. Bineta batean turbantea lehergailuz josita dauka, Alah-ren kamikaze gisa. Frantses aldizkari satiriko batean (Charlie-Hebdo) ere eridikulizatu dute Mahoma. Honela dio negarrez: “que c’est dur d’être aimé par des cons”, hau da, zein gogorra den baboek maitatua izatea. Orduan, mila milioi musulman horiek kaikuak al dira?

Inork ez du ukatzen adierazpen askatasunaren alorrean sartzen direla marrazki horiek; baina, nahiz eta legala izan, etika guttikoak dira eta sentiberatasun eta enpatiarenean arrastorik gabeak.

3. PREPOTENTZIA KULTURALA

Ez da berdín menpekoa satirizatzea edo gainekoa. Karikatura hauei harrokeria darie, gure kultura hobea eta aurreratuagoa bailitzan, alegia. Nagusitasun konplexuz beterik daude. Txiroei burla egitea baino jarrera nazkagarriagorik ba ote? Musulmanak bizi diren lurraldeetan ez al dugu eragin nahikoa gehiegikeria? Bestela ikusi besterik ez daukagu; Irak-eko okupazioa, Sharon-i eman zaion laguntza lotsagarria, Afganistan-go gerra, Abu Ghraib-eko torturak, Guantánamo-ko doilorkeria eta abar...

4. IRAINARI ALTERNATIBA:
ZIBILIZAZIOEN ALIANTZA

Zibilizazioen arteko txokearen adierazgarri dira karikatura hauek. Ehundaka urte daramatza mendebaldeak ekialdeko kulturak zapaltzen. Nirekiko, gaurko munduaren erronkarik handienetakoa honetan datza: pobreziaaren aurkako borrokan eta erlijio eta kulturen arteko paktuan. Erlijio eta kultur ezberdinak ez daitezela izan gerra iturri, elkartasun gune, baizik. Eta ez dugu lortuko hori besteak eridikulizatu eta gutxietsiz, onartuz eta neurrigabeko begirunez tratatuz. Besteak anatematizatuz ez goaz inora.

Euskal Herriko Bilgune Soziokultural Islamiarraren idazkaria den Othman Gomez Kortazar-en hitz batzuekin bukatu nahi dut gogoeta hau. Honela dio: “Liskarra nagusi den uneotan Alah-ren mezulariak erakusten zituen pazientzia eta apaltasuna gogoan eduki behar ditugu. Izan ere, elkarren kontra daudenak adiskidetzen saiatzea Musulmanen betebeharrinportantea da... Egoera honetan, Islamaren aurkako erasoengatik sentitzen dugun haserre bideratzeko ekimenak xumeak eta baketsuak izan behar dute”, Ebanjelio purua!

Ez, Islamofobiari! Bai, Islamofiliari! Bai, zibilizazioen bizi-kidetzari!

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas - Aritz Gorriti

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.

ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA,

NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: otsailak 24. Idatzia ekartzeko azken eguna: otsailak 20.

NOAUA! Kultur Elkarteak

lau urteko hitzarmena sinatu du Udalarekin

Zumarte Musika Eskola eta Etumeta Euskaltegiarekin ere akordiora iritsi da Udala

Orain arte, urtero dirulaguntza bat jasotzen zuen NOAUA! Kultur Elkarteak. Aurrerantzean, ordea, Udalaren dirulaguntza hori hitzarmen bidez finkatuko da. Lau urteko iraupena izango duen akordio honi esker, NOAUA!k 33.204 euro jasoko ditu urtero. Otsailaren 9an egin zen hitzarmenaren sinadura-ekitaldia. Etumeta Euskaltegia eta Zumarte Musika Eskolarekin ere, prozedura berdina jarraitu du Usurbilgo Udalak.

Hitzarmenaren kontua ez da berria. Aurreko legealditik dator. Dirulaguntzen inguruko lege aldaketak, ordea, azkartu egin du hitzarmenaren gaia. Akordio honen ondorioz, Udalak NOAUA! Kultur Elkartearekin dirulaguntza-erregimena eta lokalaren erabilpena arautu du. NOAUA!k, aldiz, astekaria eta web orria egiteko konpromisoari eutsiko dio.

Euskararen erabilera zabaltu, euskal kultura sustatu

Baina akordioa haratago doa. Lehenik eta behin, euskararen erabilera zabaltu eta Usurbilgo bizitza-esparru guztietan



EZKERRIK HASITA, MERTXE MUJICA AEKKO ARDURADUNA, LUISMARI ORMAETXEA ALKATEA, IÑAKI MUJICA ZUMARTE MUSIKA ESKOLAKO LEHEN-
DAKARIA ETA ANA AIZPURUA, NOAUA!KO LEHENDAKARIA.

normaltzeko ahalegina egingo du NOAUA!k. Era berean, euskal kultura zaindu eta ezagutzera ematea, iraganeko sustrai kulturalak galtzen ez uztearren eta sortuko den kulturgintza bermatzeko konpromisoa hartu du NOAUA!k.

Aurreko helburuen ildotik, herriaren aurrerabiderako egoki izan litezkeen ekintza, egitura eta jarduera ekonomi-

koak antolatzen jarraituko du NOAUA!k.

Usurbilgo Udalak urtero NOAUA!ri emango dion dirulaguntza 33.204 eurokoa izango da. Honez gain, Borda Berri kalean duen lokala ere utzi dio Noaua!ri, bertan aldizkaria aurrera atera eta kultur jarduera garatzeko.

IMANOL UBEDA

Etumeta Euskaltegia eta Udalaren arteko hitzarmena, hamar urtekoa

Hitzarmenaren helburua honakoa da:

- Udalaren aldetik, Etumeta Euskaltegiaren dirulaguntza-erregimena eta prekarioz utziko dion lokalaren erabilpena arautzea.
- Etumeta Euskaltegiaren aldetik, Usurbilgo udalerrian eta bereziki Usurbilgo biztanleriaren artean, helduen euskalduntze eta alfabetatze-lanen eskaintza sustatzea.

Esan behar da hitzarmena ez dela berria, lehenago Udalak bazuela hitzarmena Etumeta Euskaltegiarekin, eta oraingo honetan hitzarmena berritu egin dela.

Usurbilgo Udalaren ekarpen ekonomikoa premisa batzuen arabera finkatuko da. Modu honetara, 2005 urtean Etumeta Euskaltegiak 15.592 euro jaso ditu. Kale Nagusian duen lokala ere, beste 10 urtez utziko dio Udalak euskaltegiari.

Zumarte Musika Eskola eta Udalaren hitzarmena, lau urtekoa

Udala eta Zumarte Musika Eskolaren arteko hitzarmenaren helburua honakoa da:

- Usurbilgo Udalaren aldetik, Zumarte Musika Eskolarekin dirulaguntza-erregimena eta prekarioz utziko dion lokalaren erabilpena arautzea.
- Zumarte Musika Eskolaren aldetik, Usurbilen eta bereziki Usurbilgo biztanleriaren artean, musika irakaskuntza sustatzea.

Hitzarmenaren iraupena lau urtekoa izango da.

Udalak jarriko duen dirua ez da inoiz 40.000 euro baino gehiagokoa izango. Modu honetara, 2005 urtean, Zumartek 36.195 euroko dirulaguntza jaso du.

Honez gain, Udalak, Kale Nagusian duen lokala ere utzi dio Zumarte Musika Eskolari.

Arantxa Manterola, Aitzaga elkarteko sortzaileetakoa

“Bilgunea kendu digute baina lanean jarraituko dugu”

Komunikabideen arreta piztu zuen Aitzagaren itxierak. Baina joan dira kamarak, kazetariak. Orain egunerokotasunari heltzeko garaia da. Tentsioa eta gero, itxieratik haratago doan analisisa egitea eskatu diogu Arantxa Manterolari.

NOAUA! Kontraesan bat agerian geratu da. Egoitza itxi egin dute baina elkarteak ez dute baliogabetu. Beraz, beste egoitza bat zabaltzeko aukera izan- go luke Aitzaga elkarteak, ezta?

Arantxa Manterola. Bai, hala da. Eta jarduerak egiteko aukera ere badugu. Egoitza, bilgunea kendu digute. Baina elkarte bezala funtzionatzen jarraituko dugu eta ez dago inolako debekurik zentzu horretan. Kontua da kalean geratu garelako. Eguneroko jarduerak bat ere bazen, taberna, eta hori ere itxi egin dute.

Taberna alokatuta genuen; Madrilen ere hori argitu genien. Alokaturako taberna bazegoela Aitzagan, langileak zituen. Elkarte gastronomikoa ere bade- la eta guk langile bat dugula hor... Zentzu horretan, abokatuak neurriaren proportzionaltasuna kontuan hartzea eskatu zion epaileari. Pentsatzen genuen kontuan izango zuela, baina epailearen autoak ez zuen ezer zehazten. Berriki, errekurtsioa jarri dugu neurri honen aurka. Errekurtsio orokorra aurkeztu dugu, baina ez dakigu itxiera-neurria altxatuko ote den ala ez. Elkarteak elkar- te bezala funtzionatu dezake eta lanean jarraitzeko asmoa dugu. Aitzaga itxi eta biharamunean alde aurretik zehaztuta zegoen bazkaria egin genuen. Eskertzekoa da Iruin sagardotegiaren eskaintza, berak eskaini baitzuen lokala eta elkartasun hori eskertzekoa da.

N. Egoitza itxi egin dute, baina elkar- tearen kontrako neurriarik ez da hartu. Zein da Audientzia Nazionalean izan zinetenon egoera?

A. M. Guri deklarazioa hartu ahal iza- teko, inputatu egin gintuzten, talde armatuko kolaboratzaile gisa. Sorpresaz hartu genuen, egia esan. Une horretan posible genuen ez deklaratzeko, baina berriro joan beharko genuke. Momentuan deklaratzeko erabaki genuen.



OTSAILAREN 12KO MANIFESTAZIOAN EHUNDAKA LAGUN BILDU ZIREN.

Euskaraz egin genuen, gainera. Zer da Aitzaga, ze kargu genuen eta hor bilera bat egin zela ba ote genekien... Guk ez genuen bileraren berri baina epaileari esan genion elkarteak beti izan dela irekia. Horrela izan dela beti. Herriko taldeek beti izan dituztela ateak irekita. Hor hamaika ekimen, ekitaldi eta bilera egin direla, arlo ezberdinekoak. Hurrengo egunean autoaren berri eman zuen eta bi urterako itxiera agindu zuen. Baina guri ez zaigu ezer leporatzen.

ARANTXA MANTEROLA

“Hitz egin behar dela esaten dute eta hitz egiteko lekuak ixten dizkigute”

N. Beste egoitzarik irekitzeko aukera aztertu al duzue?

A. M. Oraindik ez dugu hori aztertze- ko denbora izan. Taberna ixteak kezka- tzen gaitu orain. Errentan zuenari kalte egiten zion baina baita guri ere, noski, bilgune bat baitzen guztiontzat. Egia esan, ez dugu gure jarduerak aurrera nola eramanez aztertze denbora gehiegi izan. Udalari lokal bat eskatzea ez dugu bazter- tzen. Baina ez dakigu neurriak bi urte iraungo duen ala lehenago altxako duten

neurri hori; edo bi urte pasa ondoren beste bi urte ixteko erabakia hartuko duten...

N. Bilgune hori itxita, sakabanatzeko arrisku horren beldur al zarete?

A. M. Oztupo bat gehiago izango da baina herri txikia da, denok ezagutzen dugu elkar. Lehen ere, ezker abertzalea egoera txarrean lan egitera ohituta dago. Hala ere, hau guztia ez dugu Aitzagaren aurkako eraso bat bezala ikusten, autoak berak irekita uzten du ateak. Beste elkarte batzuk aztertze bidea ematen du eta guk kontestu global batean kokatzen dugu Aitzagakoa.

N. Bide judizialek iritsi den erabakia izanik ere, Aitzagakoa erabaki politikoa dela esan zenuen batzarretako batean.

A. M. Bai, bai. Guri tokatu zaigu orain baina bihar beste herri batean gertatu daiteke.

N. Egoera itxaropentsu baten atarian gaudela esaten den garaian.

A. M. Hitz egin behar dela esaten dute baina hitz egiteko diren lekuak ixten badizkigute, ba kalean edo autobusean hitz egin beharko dugu... Herri hau, zori- txarrez, ohituta dago horrelakoetara.

Talde eta ekimen ugariren aterpe

Duela hamabi urte zabaldu ziren Aitzaga elkartearen ateak. Egitasmoa aspalditik zetorren baina ahaleginak elkarte itxura hartu zuen 1994an. Abertzale eta ezkertiarren bilgune izateko osatu zen Aitzaga elkarte. Hasiera-hasieratik gizonezkoei zein emakumezkoei irekia, aukera berdintasuna lehen egunetik bermatu zen. Duela lau urte, Audientzia Nazionalak Aitzagaren diru kontuak blokeatzeko erabakia hartu zuen. Neurri honek Euskal Herriko beste hainbat elkarteri ere eragin zien. Hala ere, Aitzagak lehengo martxan jarraitu zuen lanean. Grande-Marlaska epailearen aginduz, Guardia Zibilak otsailaren 11n itxi egin zuen arte.

Elkartea 1990ean osatu bazen ere, Aitzaga elkartearen egoitza 1994an zabaldu zen. Kokaleku ezberdinak aztertu ondoren, Paris Etxea bezala ezaguna den eraikina eskuratzeko aukera izan zuten, eta ez zuten zalan-tzarik izan.

AITZAGA ELKARTEA

“Herri mugimenduei eta bereziki herriko taldeei irekitako egoitza izan da Aitzaga elkarte”

Ordutik hona, herri mugimenduei eta bereziki herriko taldeei irekitako egoitza izan dela adierazi digute Aitzaga elkarteko kideek.

2004. urtean, hamargarren urteurrena ospatu zuen Aitzagak. Horren harira, erreportajea egin genuen NOAUA! aldizkarian. Bertan jaso genuen elkarte honen sorrera eta ibilbidea. Bittor Iribar elkarteko bazkideak aditzera eman zigunez,



AITZAGA ELKARTEA HERRIKO TALDEEI IREKITA EGON DA.

"euskal kultura, izaera, hizkuntza, lurraldetasuna eta naziotasuna sustatzeko eratu genuen elkarte". Horrekin guztiarekin batera, ezkerreko baloreak eta joerak sustatzea izan da Aitzagaren ahalegina.

Kultur eta kirol ekimen ezberdinen sustatzaile

Elkarte gastronomikoa ere bada. Baina hori izateaz gain, kultur eta kirol ekimen ugariren sustatzaile izan da Aitzaga: pilota txapelketak, azokak (azaroakoak, adibidez), Euskal Herriko beste lurraldeetako taldeekin ekimenak garatu izan dira...

Herriko ekitaldietan, jaietan eta beste elkarteekin antolatutako hainbat ekintzetan ere partaide izan da Aitzaga. Hala nola, beste talde batzuen jardueren azpiegitura izan da elkarte: Erle Eguna, jaialdiak, Sagardo Eguna, Ikastolaren Eguna, Gazte Asanbladen Topaketak, Gazte Mugimenduaren udako ikastaroak...

IMANOL UBEDA

120 bazkide ditu elkarteak

Duela lau bat urte gorabehera askoren lekuko izan ziren Aitzagaren moduko elkarte asko; bereziki, bide judizialek zetozen aginduek eragindako gorabeherak izan ziren. Audientzia Nazionaletik etorritako agindu baten ondorioz, Aitzaga zein Euskal Herriko beste elkarte askoren kontu korronteak blokeatu egin zituzten duela lau urte. Honek zenbait arazo sortu zizkien Aitzagakoei, baina hala ere, aurrera egin zuen eta martxan izan da urte hauetan.

Aitzaga Elkartek, gaur egun, 120 bazkide ditu. 2004an, X. urteurrena ospatu zuen.



ARTISAU AZOKA ANTOLATU IZAN DU AITZAGA ELKARTEAK.

Otsailaren 25ean, Inauteri Jaia

Herria itxuraldatzeko ordua iritsi da; Inauteriak hemen dira! Aurten ere badugu gai berezi bat, eta larunbatean, hilaren 25ean, guztiok mozerrotu behar dugu. Gaia: Usurbil, marrazki bizidunen munduan. Aukera ugari dago: Son Goku, Doraemon, Mortadelo, Dortoka ninjak... Bilaka dezagun herria koloretako paradisu batean.

Ohi bezala, Udarregiko ikasleek prestatu dituzten ekitaldiekin hasiko da Inauteri Jaia. Otsailaren 24an goizeko 10:00etan, Agerialdeko ikastolatik kalejiran irtengo dira haurrak. Ondoren, Oiaro kiroldegiko emanaldiarekin hasiko dira, 11:30ean. Larunbatean, otsailak 25, herri osora zabalduko da festa.

Goizean haurrak izango dira nagusi, bereziki, 11:00etarako frontoian antolatutako joko eta tailerrekin. Sorpresatxoak ere izango dituzte. Hori bai, mozerrotuta agertu beharko dute haur guztiak. Arratsaldean kalejira



EGIPZIARRAK USURBILEN. AURTEN, ORDEA, "MARRAZKI BIZIDUNAK" IZAN DA PROPOSATU DEN GAIA.

izango da. 18:30ean egingo da koadrilen elkartzea frontoian, eta kalejira-poteoari hasiera emango zaio, herriko trikitilariak girotuta. Behin giroan sartuta, afaria egingo da sagardotegian, ondoren egongo den parrandarako

prestatzeko. Gogoan izan mozerrotuta agertu behar dela hona ere! Afarirako izen ematea, ohiko tokietan. Baina kontuan hartu sagardotegirako izena hilaren 18a baino lehen eman behar dela.

Inauterietako hitzorduak

Otsailak 24, ostirala
Goizez, Udarregi Ikastolan

10:00etan, Agerialdetik kalejiran irtengo dira ikasleak.

11:30ean, kiroldegian, ikasleen emanaldia.



Otsailak 25, larunbata
Goizez, haurrak nagusi

11:00etan frontoian, umeentzako jokoak eta tailerrak. Sorpresak ere izango dira. Arratsaldean, kalejira.
18:30ean, frontoian, koadrilen elkartzea. Kalejiraren hasiera herriko trikitilariak girotuta.
21:00etan, sagardotegian afaria. Ondoren, parranda mundiala. Izen ematea, ohiko tokietan, otsailaren 18a baino lehen.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea - 943 363 348 - 609 888 021

txirriStra
KONTSEJU ZAHARRA 13
943 300 400

 pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

“Koadrila osoa mozorrotzen gara”

Inauterietan hiruzpalau koadrila irteten dira mozorrotuta herrian. Horietako bi koadriletako gazteekin bildu gara, Jokin Rezola eta Eider Tapiarekin. Herrian giroa egoten dela diote beraiek, jende askok proposatutako gaia jarraitzen ez badu ere. Hala ere, badirudi giro hobea egoten zela garai batean, afaria frontoian egiten zenean.

NOAUA! Inauteri zaleak al zarete koadrilan?

Jokin Rezola. Bai, inauteri zaleak gara. Gehienak janzten gara normalean, baina beti berdinak. Beti animatzen garenak, besteak ez. Eta normalean herriko gaiaren barnean egoten dira jantziak, bakoitza bere aldetik janzten gara, baina gaiaren barnean. Zerbaitetarako dago gaia.

Eider Tapia. Gu ere inauteri zaleak gara, guztiak koadrilan. Koadrila osoa mozorrotzen gara, eta guztiak berdin. Herrian irtetean, gaiaren barnean gu ere.

N. Joaten al zarete beste herrietara?

J. R. Tolosara astelehenean, eta herrian larunbatean, orduan izaten baita festa hemen. Donostiara ez gara joaten, adibidez. Ez dugu jantzi bera erabiltzen gau ezberdinetan, bariatu egiten dugu. Izan ere, gau batean erabilitako jantziak, guk eginak badira, zizko eginda gelditzen dira parranda eta gero.

E. T. Hemen normalean arropa zaharrekin egindako jantziak erabiltzen ditugu, baina Tolosara joateko mozorro lan-duagoak egiten ditugu.

J. R. Piramide bat egin genuen batean, egipziarrez jantzi ginenean, eta zapal-zapal eginda gelditu zen gaua amaitzerako. Horregatik ezin da jantzi berdina eraman. Gainera, Tolosara bakoitza bere aldetik mozorrotuta joaten gara, gai berdina izan beharrik gabe.



KOADRILA HAUENGATIK EZ BALITZ, AKABO INAUTERI JAIA USURBILEN.

E. T. Gu guztiak berdin jantzita joaten gara Tolosara ere.

Giro ona Usurbilen

N. Zer nolako giroa egoten da herrian? Jendeak hartzen al du parte?

J. R. Betiko lau koadrilak izaten gara gaia jarraitzen dugunak. Beste koadrila batzuk badaude beren aldetik janzten direnak... Garai batean Atxegaldeko emakumeak ere janzten ziren.

E. T. Jendea irteten da, agian ez jantzita, baino giroa egoten da. Lehengo urtean ere betiko jendeaz gain gehiago irten ziren; agian beraien aldetik mozorrotuta, baina ibiltzen dira. Esan beharra dago gaur egungo gaztetxoak ez direla herrian irteten, jende ezaguna dagoela eta.

N. Zertaz mozorrotu izan zarete?

E. T. Estralurtarrez, indiarrez, geishaz, behiz, trogloditaz, Marilyn Monroetaz...

J. R. Egipziarrez, indiarrez (Eiderren koadrilarekin), estralurtarrez, mamuharapakariz...

N. Zein izan da herrian ikusitako mozorrorik politena edo deigarriena?

E. T. Koadrila bat lehoiz atera zen, oso ongi makilatuta. Beste batzuk afrikarrez irten ziren, oso ondo hauek ere.

N. Lehen egoten al zen inauteri giroa?

J. R. Garai batean afaria egiten zen frontoian, bakoitzak bere janaria eramanez. Denak batera afaltzeak giroa sortzen zuen. Ijitoz jantzi ziren urtean jende asko egon zen. Gaia Asterix eta Obelix izan zenean ere jende dezente bildu zen. Tabernek gaiarekin bat egiteak ere laguntzen du, giroan sartzea horrela errazagoa da eta.

NEREA KORTA

teiatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU

© 943 69 68 52 · 620 800 186

MAHUKA
ETXEBESTE KALEA, 3. 943 361 106

Hemen aurkituko duzu
glizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA

Udarregi ikastolako mendi-taldea, sasoi betean

Otsailaren 5ekoa da irudia. Udarregi ikastolako mendi-taldeak antolatuta, Donostiako Grosetik abiatu eta Uliako menditik barrena Pasaiko Plata itsasargirainoko ibilbidea osatu zuten. Bueltarako, mendi bereko beste bide bat aukeratu zen, irteerako lekura iristeko. E-postaz igorri diguten idazkiak dioten bezala, “hotz

egin bazuen ere, eguerdirako eguzkia atera zuen eta itsasoko paisaiatz eta Uliako txoko zoragarriez gozatzeko aukera izan genuen”.

Martxoaren 5ean Lezora abiatuko dira
Irteera honakoa izango da: Usurbildik Pasai Donibanera kotxez, Lezora mendiz eta buelta autobusez Pasaiara eta kotxez Usurbila.



IRUDIAN, OTSAILAREN SEKO MENDIZALEAK.

MARTXOAREN 5EAN LEZO ALDERA ABIATUKO DIRA.

Baserritar jantziak nola josi

Santuenea Kultur Elkartek baserritar jantziak josteko ikastaroa antolatu du, eta hasi ere bai, dagoeneko. Hilaren zazpian bildu ziren elkartearen egoitzan ikastaroarekin hasteko, eta han egon ginen giroa usaintzen. Lehen begiradan deigarriena egoitzaren itxura berria izan zen; jada guztiz egokitu dira egoitzara, eta apaintze lanak egin dituzte: gortina biziak, altzairu berriak eta kafe makina jarri dituzte, besteak beste.

Taldetxo bat bildu zen beren oihala eta guzti baserritar jantziak josteko, baina oraindik jende gehiago espero zutela esan ziguten, hasteko data aldatzekotan egon baitziren. Dena den, lehenengo egun horretan bildu zirenak



JADA MARTXAN DA JOSTUN IKASTAROA.

giro goxoa josten hasteko aukera izan zuten.

Aipatu beharra dago “Capoeira” ikastaroa martxan dela Santuenea Kultur Elkartean, eta oso ongi doala, gainera. Auzoko neska mutilak kirol brasildarra gogotsu ari direla ikasten esan ziguten elkartean, eta baita argazkiak ateratzera joatera gonbidatu ere.

Otsailaren 24an aurkeztuko da Jabier Pikabearen liburu berria

Jabier Pikabeak liburu berri bat idatzi du. Honakoan, Aginagan jasotako kontuak eta hitzak dira bildu dituenak. “Errioko jarduerak eta bertako hiztegia” du izena liburuak eta, nola ez, Aginagan bertan aurkeztuko du, Apaizetxeko aretoan, arratseko 19:00etan.



Afarira joateko, aldeztu aurretik izena eman behar da Eiza dendan

Aurkezpenaren ondoren, afaria egingo da soziedadean. Joan nahi duenak aldeztu aurretik izena eman dezala Eiza dendan, otsailaren 22a baino lehen.

LAN DEIALDIA: HEDABIDE ETA IRAGARBIDE ENPRESAK BATEK

Kazetaria behar du

Beharrezkoa:

- Kazetaritza lanerako irakasi.
- Euskaraz hitzez lan egiteko gaitasun erabiltzeko.

Baloratuko da:

- Erroretzeko hedabide idazkari lanerako eskarmentua.
- Lantekak zuzentzeko eta erabiltzeko lana antolatzearen alderia.

- Jardun idazkari egindako beste lan lanak.

- Kazetaritza jardunari lotutako ikastaro edo jarduerak osagarriak.

Eskaintza da:

- Lan lanerako eskarmentua.
- Lan lanerako eskarmentua (8 ordu).
- Solentzia lan lanerako eskarmentua.

Idazkari lanerako zure Curriculum vitae-a helbide honetara:

KAZETARIA LANPOSTUA - 44. postakutxa - 20.150 AMASA-VILLABONA

ASKO DUGU ESATEKO

Astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, Plis, Plas, Txalo ta Jolas, “Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak”...

Gehiago eta hobeto lan egin daiteke. Baina NOAUA!n zure laguntza ere premia da.

ORAIN, NOAUA!KO BAZKIDE EGITEN BAZARA, USURBILGO BASERRIEN LIBURUA JASOKO DUZU DOAN

Tf: 943 360 321

E-posta: elkartea@noaua.com

Euskal Herritik 300 tona janari bidali zaizkie Tindufen bizi diren saharar errefuxiatuei Usurbilen bildutako azukre, atun eta konpresekin 300 kg osatu dira

Saharar errefuxiatuek janariaren aldetik segurtasunik ez izateak ondorio latzak dakartza herritarren bizi-kalitatean, batez ere osasunean. Desnutrizioak eragindako patologiak nagusitzen dira eta beste gaixotasun batzuei aurre egiteko gaitasuna txikiagoa egiten da. Larrialdiari erantzun asmoz, premiazko 300 tona janari bidali zaizkie Tindufen bizi diren saharar errefuxiatuei. Horietatik 300 kg Usurbilen bildu dira.

Euskal Herrian, azken asteotan, janari (azukrea eta hegazuza) eta garbitasun gaien (konpresak) bilketa herrikoia egin da; gainera, euskal erakunde publikoen ekarpen material zein ekonomikoei

(150.000 euro) esker, laguntza hau guztia karabanen garraiatua izan dadin 45 ibilgailu (berri zein bigarren eskukoak) lortu ahal izan dira.

Merkantzia jada Saharan da. Aurrerantzean, Saharar Ilargierdi Gorria izango da sahararren artean janariak banatzeko ardura duen erakundea.

Karabana hau posible egin duten pertsona, erakunde, ikastetxe, GKE eta gizarte erakunde guztiei eskerrak eman nahi dizkie Saharako Herriarekiko Elkartasunerako Euskal Elkarteak.

Usurbilen, Dia eta Aliprox-Eroski sal-tokietan ipini ziren bilketa-guneak. Baita Udarregi ikastolan ere. Herritarren elkartasuna eskertu nahi dute Euskal Karabanaren sustatzaileek.



ERA HONETAKO KAMIOIETAN
ERAMAN DIRA BILDUTAKO ELIGAIAK
TINDUF-EKO KANPALDIETARA.

Usurbilgo Udalak ere, Ongizate Departamenduak proposatuta, 3.000 euroko dirulaguntza ahalbidetu zuen.

Usurbilgo 18/98+ lan taldeak Bilbora joateko autobusa antolatu du

Orain urtebete osatu zen 18/98+ lan taldea Donostiako Kursaal. Plataforma aurkeztu zutenean, 18/98 auziaren eta zuzenbide estatuaren arteko harremanean hutsune larriak egon zitezkeela azaldu zuten.

Epaiketa, ordea, uste baino larriagoa izaten ari dela diote

plataformako kideek.

Hori salatu asmoz, manifestaziorako deialdia egin dute. Otsailaren 18an, Bilboko Aita Donostia enparantzatik irtengo da manifestazioa, arratsaldeko 17:30ean.

Usurbildik autobusa irtengo da. Izena emateko, ohiko tokietan.



Larazaintza
Sartak
URTINEA
urtinea@euskalnet.net
Larask
Larask
Landareak
San Esteban
943 362 255
943 366 054 fax

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789

ALBISTEAK EDIZIO JARRAITUAN • ALDIZKARIA ON LINE • INKERTAK • FORUAK • POSTA
www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

ITURGINTZA
JOSEBA
ARANGUREN
☎ 943 830 072
☎ 659 883 912

Zumarte Musika Eskolako hamabi ikasle Euskal Herriko Piano Jaialdian izan dira

Euskal Herriko Lehen Piano Jaialdia ospatu zen lehengo larunbatean, hilak 11, Andoaingo Bastero Kulturguneko Auditorioan. Zumarte Musika Eskolako hamabi ikasle bertan izan ziren. Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteak antolatu zuen jaialdia eta Zumartetik joandako guztiek domina bana jaso zuten: 11 zilarrezkoak eta bat brontzezkoa.

Sei ikaslek bakarka jo zuten pianoa: Leire Zubigaray (C.Czerny-ren "Allegreto 1" obra), Ane Aburruza (Bastien-en "Taranela" obra), Medea Cuellar (F. Emonts-en "Tangoa"), Maialen Iñarra (H. Lichner-en "A short Story" obra), Ainhoa Azpiroz (C. Nortonen "Rhapsody" obra), eta Thalia Cuellar (A. G. Abrilen "Sonatina del mar" obra). Pianoa lau eskuetara atalean, beste sei ikaslek jo zuten: Ander Hernandez eta Eneko Portu (J. Michael



ANDOAINGO BASTERON EGIN ZEN PIANO JAIALDIA BAINA ARGAZKI HAUEK

MUSIKA ESKOLAN ATERATAKOAK DIRA. ARGAZKIAKI: ZUMARTE MUSIKA ESKOLA.

Nuytenen "Rain Play" obra), Xuban Illarramendi eta Miren Izeta (J. Smisoren "Sailor's Song" obra) eta

Vanesa Alzas eta Ane de Miguel (H. Hodyren "Les preires pas du petit chat" obra).

Zubietako Eskola Txikian eta Aginagako Herri Eskolan aurrematrikulazioa zabalik



Aginagako Herri Eskolak ikasturte honetan 11 ikasle bildu ditu. 06/07 ikasturterako aurrematrikulazio epea otsailaren 18an amaituko da. Matrikulazioa osatzeko ordutegia: arratsaldeko 16:00ak arte. Eraman beharrekoak, haurren argazkia eta familia liburuaren kopia.



Zubietako Herri Eskolan 12 dira ikasturte honetan bildu diren ikasleak. 06/07 ikasturterako aurrematrikulazio epea otsailaren 18an amaituko da. Matrikulazioa osatzeko ordutegia: 12:00-13:00. Eraman beharrekoak, haurren argazkia eta familia liburuaren kopia.



Ea asmatzen dituzuen igarkizun hauek

Ni Ttatto
marigorringoa naiz,
Udarregiko hiru urte-
ko gelako haurren bidelaguna.

Gure geletan gauza asko-asko
egiten ditugu; margotu, zulatu,
abestu, olerkiak eta ipuinak
entzun...

Batzutan igarkizunak asma-
tzen ere jarduten gara. Honako
hauek asmatzen badituzue, ez
zarete txapeldun makalak!

IGARKIZUNA 1

Aurpegi zuri
sudurra gorri
zapata handi
pozik beti.
Lurrera erori
orain kantari
zureztat naiz ni
barregarri.
Nor naiz?

Soluzioa: (Pailazoa)

IGARKIZUNA 2

Erratz gainean arinak
Sudurrak luze eta finak
Beltzak hortz eta haginak
Hegan dabiltza...

Soluzioa: (Kupinaka)



HH3ko haurrak



Argazkian ageri direnak, otsailaren 4an,
Lasarte-Oriako Michelingo zelaian
futboleko jokatzeko aritu ziren.

Udarregi ikastolako 3. mailako haurrak dituzue.
Taldea ezberdinen aurka jokatuz, goiza ondo pasa
eta etxera bueltatu ziren. Aupa Udarregi!

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Zendoia

Kale Nagusia 35 - 943 37 40 71

LATXA
Kutxa denda

Janari prekozinatuak
Kongelatuak
Bertako produktuak

Kale Nagusia 2, Oteku - Telf: 943 301 803

Patri Jatetxea

K/nagusia 14, © 943 362 725

Ustekabeko herri kirol saioa

Zaragozako Bella Easoko langileek gozatu ederra hartu zuten; gero Saizarren afaldu zuten

Otsailaren 9an kaxkora hurbildu ziren lagun askok ustekabean hartu zuten herri kirol ikuskizuna. "Astean zehar, herri kirolak?", pentsatuko zuen batek baino gehiagok. Hori bezain arraroa egiten zen esataria kastellanoz entzutea. Non eta pilotalekuan, herri kirol saio batean... Gero jakin genuen Zaragozatik etorritako 80 bat lagunei prestatutako ikuskizuna izan zela.

Bella Easo enpresako langileak Donostian zeuden bildurik. Otsailaren 9an, *kapitalean* bazkaldu eta gero, txapela buruan azaldu ziren denak Usurbilgo frontoian. Txaloz eta oihuz jarraitu zituzten aizkolari, harrijasotzaile eta pilotarien saioak. Ondoren, Saizarra joan ziren afaltzera. Goizeko 4:00ak arte parrandan ibili eta Donostiara bueltatu ziren.



IÑAKI ETA IÑAXIO PERURENA HARRIJASOTZAILEAK, FAUSTO ETA UGAITZ MUGERZA AIZKOLARIAK ETA JOXE LAPAZARANER ESKAINITAKO IKUSKIZUNAREKIN GOZATU EDERRA HARTU ZUTEN ZARAGOZAKO BISITARIEK.

Oriako jaitsieran, Orio nagusi

Oria ibaiaren traineru jaitsieraren 12. edizioa egin zen pasa den larunbatean. Aginagako Mapilen eta Saikolan hasi eta Orio arteko distantzian, Orioko trainerua izan zen nagusi.

19 minutu eta 37 segundo behar izan zituen Orio A-k Aginagatik Oriora arteko ibilbidea egiteko. Bigarren sailkatuak, Hondarribiak, sei segundo gehiago behar izan zituen ibilbide bera egiteko. Hondarribia eta gero iritsi ziren Castro A, Orio B, Arkote, Zumaia, Urdaibai eta Zarautz A. Guztira, hogeita sei traineruk hartu zuten parte jaitsieran.



TRAINERUEK SEI KILOMETROKO IBILBIDEA OSATU BEHAR IZAN ZUTEN.

ASTEBURUKO PARTIDEN EMAITZAK:

Otsailak 11 larunbata Donostiako Gaskan Gipuzkoako txapelketa, eskuz binaka finala
Andatzpe – Pagola 1 40 / Hernani 1 39
(Mikel Landa) (Unai Albarez)

Otsailak 12, igandea Usurbilen Udaberri txapelketa

Eskuz binaka kadeteak 1.maila
Andatzpe – Pagola 22/ Urnieta 14
(Eñaut Esnaola – Imanol Esnaola)

Eskuz binaka nagusiak 1. maila

Andatzpe – Pagola 1 6/ Zumaia 22
(Errasti - Landa) (Iribar anaiak)

ASTEBURUKO PARTIDAK:

Otsailak 17, Ostirala, Aginagan, 19:00etan
Udaberri txapelketa
Eskuz binaka jubenilak 1.maila
Andatzpe – Pagola / Lazkao
(Etxeberria - Zinkunegi)

Eskuz binaka nagusiak 1. maila

Andatzpe – Pagola 2/ Aurrera Saiatz 1
(Santxo - Aranburu) (Bidania)

Eskuz binaka nagusiak 2. maila

Andatzpe – Pagola / Beloki
(Arozena - Urkia)

Paleta goma gizonak nagusiak 2.maila

Andatzpe – Pagola / Kurpil Kirolak
(Mujika – Urdanpilleta)

Otsailak 18, larunbata

Donostiako Gaska trinketea

Gipuzkoako txapelketa Eskuz binaka
Andatzpe – Pagola/ Behar Zana 1
(Santxo – Landa) (Billabona)

Otsailak 18, larunbata Usurbilen, 16:00etan

Gipuzkoako Eskolarteko Pilota Txapelketa
Denera 6 partida. Hiru benjamin mailakoak eta beste hiru alebin mailakoak.

Trinketean txapeldun herriko pilota elkarteak

Andatzpe-Peña Pagola herriko pilota elkarteak Gipuzkoako Elkarteen Arteko Trinkete txapelketa irabazi zuen nagusien mailan pasa den otsailaren 11n. Partida gogor baten ondoren, ordu eta erdi aritu ziren nor baino nor Donostiako Gaska trinketean, eskuz banakako txapelketan Mikel Landa lasartearrak txapela eskuratu zuen Unai Albarez hernaniarrari 40 eta 39 irabazita.

Mikelek ez zuen finala irabaztea espero. Partida on bat egin eta "gera" ematera joan omen zen Donostia aldera, baina norgehiagoka gogor eta estu baten ondoren txapelarekin itzultzea lortu zuen. "Unai Albarez asko ibilia da trinketean eta berez, galtzeko partida zen. Hasieratik markagailuan aurretik ibili nintzen, beti ezinean baina aurretik. Bukarera, ordea, berak aurea hartu zidan. 39 eta 37 atzetik nintzela arriskatu egin nuen eta zorte pixka batekin txapelketa irabaztea lortu nuen".

Izan ere, urrian Txilen jokatu zen 22 urtez azpiko Munduko Txapelketan bigarren postua eskuratu zuen Hernani taldeko Unai Albarez menderatuta lortu zuen txapela azken urteetan herriko pilota elkarteak dabilen lasartearrak. Txapelketa honetan partidarik galdu gabe zeuden bi pilotari ziren aurrez aurre Gaskako trinketean, eta azkenean espe-



OTZA-OTZA, 40 ETA 39 EMAITZAREKIN NAGUSITU ZEN MIKEL LANDA.

rientzia gutxien zuen pilotaria nagusitu zen.

Trinketean gutxi ibilia

Azken sei urteetan trinketean ibili gabea zen Mikel Landa. "Duela sei urte bizpahiru partida jokatu nituen beste baten ordez. Orduz geroztik ibili gabea nintzen, baina txapelketa honetan gustura aritu naiz. Joko gehiagorekin, solteago ikusi dut nire burua". Norghegiagoka guztiak irabazi ditu aurtan, baina finalerdietan ere partida gogorra jokatu omen zuen Jabi Santxo herritarraren aurka. "Markagailuari begiratuta (40-20) erraz irabazi nuela

badirudi ere, asko kosta zitzaidan beti "gera" eman duen pilotari honi irabaztea".

Orain trinketean jokatzen jarraitzeko gogoarekin dago. Asteburu honetan ekingo diote Gipuzkoako klubaren arteko eskuz banakako trinkete txapelketari eta Enrike Huizi eta Jabi Santxorekin batera osatuko du Andatzpe-Peña Pagolako ordezkariak. Horrez gain, txapelketa hau irabazi ostean Euskal Herri mailako trinketeko GAVN txapelketan eskuz banaka jokatzeak aukera izango duela uste du Mikel Landak.

JOSU ARANBERRI

Partidarik galdu gabe itzuli osoa egin nahian

Usurbil Futbol Taldeko Lehen Errejonial mailako taldeak partidarik galdu gabe itzuli bat osatu dezake larunbatean. Zubietan, Euskalduna liderraren aurka jokatuko dute eta talde honen aurka galdu zuten azken neurketa lehen itzulian. Izan ere, azken 14 jardunalditan ez dute partidarik galdu. Azkenengo biak etxetik kanpo jokatu dituzte eta bietan garaipena eskuratu dute. Pasa den asteburuan 2. postuan zegoen Martuteneri 0-2 irabazi zioten Eneko Harreguy eta Iñigo Etxanizen golei esker.

Eskubaloia neurketa interesgarriak Oiardon

Asteburu honetan bi eskubaloia partida izango dira Oiardo kiroldegian. Jubenil mailako mutilen taldeak Legazpiko Aitxuri jatetxea taldearen aurka jokatuko du. Orain arte jokatutako 14 partidak irabazi dituzte herriko jokalariek gazteek eta maila bikaina erakusten ari dira. Kadete mutilen taldeak, berriz, Gipuzkoako txapelketako azken fasean lidertzan dagoen Urnabitza Elgoibar taldea izango du aurrez aurre. Usurbildarrek 27 eta 17 irabazi zuten pasa den asteburuan Oiardon Aloña Mendiren aurka.

Zubeldia anaiarentzat ere hasi da denboraldia

Hasi da 2006. urteko txirrindularitza denboraldia eta Joseba eta Haimar Zubeldia anaiak profesional mailako tropelean izango dira aurtan ere Euskaltel-Euskadi taldearekin. Lehenengoak Mallorkako itzulian parte hartu zuen otsailaren 6tik 10era bitartean eta Haimarrek martxoaren hasieran ekingo dio denboraldiari. Pro-Tour egutegiko lehenengo proban izango da usurbildarra martxoaren 8tik 14ra bitartean. Aurtan Frantziako itzulira ahalik eta ondoen iristea da bere helburua.

Aholkua

Nola prestatu etxe-aldaketa

Pertsona batzuk etxez aldatzea ezinbesteko gertakaria izan dute; zail eta konplexua dirudien arren, ez da horrenbestera, antolamendu eta metodo ona baliatzen bada. Patrikak horretarako ematen badizu, hoberena duzu eginkizun hori profesionalen eskuetan uztea.

Berme guztiak

- Aukeratu hainbat garraio enpresa: eskatu etxera etor dakizkizun eta idatzizko aurrekontu zehatza egin dezaten.

- Garraio agentzia aukeratuta, sektoreari dagokionez, egiaza ezazu legeak xedaturiko alderdi guztiak betetzen dituela, udal erregistroan izen emanik dagoela eta

erantzukizun zibil eta merkantzien asegarua daukala.

- Egiaza ezazu kontratuan datu guztiak agertzen direla: enpresarenak, inventarioa, ibilbidea, aldaketa data eta prezioa.

- Egin ezazu garraiatu beharreko gauzen inventarioa. Hori egin beharko luke enpresak ere. Kontratua sinatu aurretik egiaza ezazu dena zuzen dagoela.

- Gorde ezazu albaranaren kopia bat, balizko erreklamaziorik egin ahal izateko. Exiji ezazu merkantzia berrikusteko 24 orduko epea, sinatu aurretik.

Gauza bakoitza bere kutxan

- Enbala itzazu gauzak gelaz gelako etiketekin, kutxak daukana eta norakoa den



adieraziz. Horrela, langileek erraz jakingo dute bakoitza zein gelatan jarri.

- Gauza hauskorrak dauzkaten kutxei ipini ikur nabarmena, langileek kontuz erabil ditzaten. Adieraz ezazu zein den kutxaren goialdea, beti zutik utz dezaten.

Eguneko goardiako farmaziak

Otsailak 16, osteguna
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Otsailak 17, ostirala
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Otsailak 18, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Otsailak 19, igandea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Otsailak 20, astelehena
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Otsailak 21, asteartea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Otsailak 22, asteazkena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Otsailak 23, osteguna
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Otsailak 24, ostirala
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Otsailak 25, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Otsailak 26, igandea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,
Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

2006ko egutegi osoa: www.noaua.com

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T) /
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* / 9:00 / 12:45(T) /
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 /
15:15(T) / 21:35(T)

(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) /
21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) /
21:00 (T)

* Eskola egunetan.

T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Autobus ordutegia
Donostia-Zarautz

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz
07.40		08.05	08.25
08.00		08.25**	
08.00	08.20	08.25	08.45
08.40	09.05	09.25	
09.00	09.20	09.30	
09.00	09.20	09.25	09.45
09.40		10.05	10.25
10.00	10.20	10.25	10.45
10.40		11.05	11.25
11.00	11.20	11.25	11.45
11.40		12.05	12.25
12.00	12.20	12.25**	
12.00	12.20	12.25	12.45
12.40		13.05	13.25
13.00	13.20	13.30	
13.00	13.20	13.25	13.45 #
13.40		14.05	14.25
14.00	14.20	14.30**	
14.00	14.20	14.25	14.45
14.40		15.05	15.25
15.00	15.20	15.30	

■ Soilik larunbata gauze # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiaia

■ Larunbat lanegunetan ■ Asteburutan, jaietan **Aiarraino

Harremenatarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

Autobus ordutegia
Zarautz-Donostia

Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
06.45	07.05		07.30
06.45	07.05	07.10	07.30
07.15	07.35		08.00
07.45	08.05	08.30	
07.45	08.05	08.15	08.40
08.15	08.35		09.00
08.45	09.05	09.30	
08.45	09.05	09.15	09.40
	09.30	09.35	10.00*
09.45	10.05		10.30
09.45	10.05	10.15	10.40
	10.30	10.35	11.00
10.45	11.05		11.30
10.45	11.05	11.15	11.40
11.45	12.05		12.30
11.45	12.05	12.15	12.40
12.45	13.05		13.30
12.45	13.05	13.15	13.40
	13.30	13.35	13.55*
13.45	14.05		14.30
13.45	14.05	14.15	14.40

*Aiatiak dator ■ Asteburutan, jaietan

■ Larunbat lanegunetan ■ Soilik larunbata gauze

Harremenatarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

EuskoTren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09:20#	-	09:47#	10.08	10.24	10.39
09.47	10.03	10.20	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22#	-	11.47#
11.47	12.03	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.21#	-	20:48#	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07#	-	22.32#
21.47	22.03	22.20	22.28	22.54	23.09

* Astegunetan bakarrik

Ez da Usurbilen geratzen

Harremenatarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

Agenda !

Otsailak 18, larunbata

18/98+ lan taldeak antolatutako manifestazioa Bilbon 17:30ean. Autobusa antolatu da Usurbilen. Izena emateko, ohiko tokietan.

Otsailak 19, igandea

Aiako Harriak, Andatza KKEren mendi irteera. Goizeko 7:30ean pilotaleku atzean. Goizeko buelta. Eguerdirako herrian.

Otsailak 20, astelehena

Internet oinarritzko ikastaroa KzGunean. Otsailak 20/ martxoak 3, 11:00-13:00 (euskaraz).

Otsailak 24, ostirala

- Udarregikoak Inauterietan. 10:00etan Agerialdetik kalejira. 11:30ean, kiroldegian, ikasleen emanaldia.

- "Errioko jarduerak eta bertako hiztegia" liburuaren aurkezpena Aginagako apaizetxearen aretoan. 19:00etan. Ondoren afaria soziedadean. Prezioa: 15 euro. Aldez aurretik izena eman Eiza dendan (otsailaren 22a baino lehen).

Otsailak 25, larunbata

Inauteri Jaia. 11:00etan umeentzat jokoak frontoian. 18:30ean, koadrilen elkartzea frontoian, segidan, trikitilariekin kalejira. 21:00etan sagardotegia. Izena emateko, ohiko tokietan, otsailaren 18a baino lehen.

Euskal dantza ikastaroa antolatzeko bilera Zubietan

Euskal dantza ikastaroa antolatzeko Ebilera deia egin da Zubietan. Hitzordua, otsailaren 24an ostirala, arratsaldeko 19:30ean, Zubietako Eskola Txikian.

Literaturaren txokoa !



Ana Urkizaren "Bekatuak"

Ana Urkizak Aiazko irailean argitaratu zuen bere azken liburua, "Bekatuak". Idazle honek hainbat "bekatu" mota bildu ditu liburu honetan: harroke-ria, mendekua, desleialtasuna, inbidia, faltsukeria, lapurreta, traizioa... Asmoa, baina, ez da katalogo bat egitea, ezta geure bizimodua antolatzeko aholkuak ematea ere, ipuinak asmatu baititu egileak gai horien



inguruan. Istorio zirikatzaile bezain kitzikatzaileak dira bilduma honetakoak, erakargarriak, giza kondizioan arakatu eta zer pentsatua ematen dutenak, azkenean irriño bat sortzeko ahoan, edo kezka bat arima barrenean. Ana Urkiza Ondarroan jaio zen 1969an. Euskal Idazleen Elkarteko idazkari kudeatzaile da eta Deustuko Unibertsitatean irakasle. "Desira izoztuak" ipuin bildumarekin plazaratu zuen lehen liburua eta orain etorri da bere bigarren ipuin bilduma hau.

Egin kontu !

Igande honetan,

Aiako Harriak ezagutzeko aukera

Andatza KKE elkarteak mendi Airteera berri bat antolatu du. Honakoan, Aiako Harriak bisitatze-ko aukera eskaini nahi digute. Irteera igande honetan bertan egingo da (otsailak 19).

Ohi bezala, pilotaleku atzean egin dute hitzordua. Goizean goiz, 7:30ean hain juxtu. Goizeko buelta izango da, beraz, bazkaltzeko etxean egoteko moduan.



GOIZEKO BUELTA IZANGO DA, EGUERDIRAKO ETXEAN.

MIKEL IZAGIRRE
ELEKTRIZITATEA
943 365 095
609 068 111
5012 ARGI ETXEA 37 KALEZAR

ERRAZKIN
IGELTSERITZA
OROKORRA
Iñaki Nagusia, 1
Tel./Faxo: 943 365 125
Móbil: 629 420 565 - 649 435 470

Industri eta iragarki
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA
PSU
943 371 954
UGALDEA POL.36.2-USBIL

ALIPROX
Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

ETXEBIZITZA

- Gazte euskaldun bat naiz eta Usurbilen edo inguruetan, bakarrik edo konpartituta etxe bat alokatuko nuke. 943361229 Joseba.
- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahi-ko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tel: 630 032 779.
- Usurbilen edo inguruetan 3 haur eta 2 helduentzat alokairuan hartzeko pisu bat bilatzen dut premiaz. 620 646 769.
- Usurbilen alokairuan etxe bat behar dugu. Ordainketa bermatua. 943365737.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje ixia saltzen dut Nagusia Kalea 4an. Interesatuak deitu telefono honetara: 656712340
- Garaje itxi bat alokatzen da Etxealdian, 22m2, kotxea erraz sartzen da, 76 euro. Interesatuak deitu arratsalde 943373185 telefonora.
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, umeak eta helduak zaintzeko eta antzeko lanetarako. Interesatuak deitu 630274906 telefonora.
- Bakeiran snow-ko klaseak eta ikastaroak ematen dira. Alojamentua ere eskaintzen da. Informazio gehiago: 652 651 906 / www.upriding.com webgunea.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientzidunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak ematen ditugu euskaraz zein gaztelaraz. Interesatuak: 653711574.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehe-

- netik ostiralera lan egiteko. 667 694 469.
- Emakume bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduek zaintzeko. Telefonoa: 626 641 155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zer-baitetan. 652 757 495.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- Pertsona bat behar dugu hiru orduz, astean bi egunetan etxeko lanak egiteko. Euskalduna izatea baloratuko da. 662145584
- Antxeta tabernan bi langile behar ditugu: kamarera bat eta sukaldean aritzeko langile bat. 943 37 03 44.
- Arraindegia batean goizez lan egiteko pertsona bat behar da. 616 735 047.
- Etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko egun osoz, pertsona baten bila gailtza. 645403905.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Urtarrilaren 21ean iluntzean 9 urteko mutiko baten bizikleta txuri-gorria galdu genuen frontoi atzean. Aurkitu duenak deitu 943360551.
- Pasa den astean haur bufanda bat galdu da. Urdin iluna eta bi marra txuri ditu. Ikastolatik plazarako bidean galdu da. Bilatu duenak 943370420 telefonora deitu. Mila esker.
- Graduututako betaurrekoak galdu ditut, Bordaberri kale inguruan. Aurkitu badituzu NOAUA!ra ekarri mesedez.
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa eta prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Komun kimiko bat eta sukaldea. 1.200km. Prezioa 6.000 e. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosiko nuke. Tlfnoa: 605 72 48 24
- Emuak salgai. Bi emu, arra eta emea modu onean saltzen dira. 657 633 461.
- Urtarrilaren 25ean txamarra bat galdu zen frontoi atzeko jolas-lekuan. Urdin ilun kolorekoa eta 10 urteko mutil batena. Aurkitu baduzu NOAUA!ra ekarri.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

Txerrimunik ordainetan !!

Zorionak Irati!

Muxu handi bana eta zorionak bi aldiz aurtengoan. Aurtengoa marka gogorra daukagu aurretik hamarkada berrian sartuaz baina, disfrutatzeko ere luzeagoa izango da. Ondo pasa eta nahi duzunean, badakizu prest egoten garela ospatzeko.



Urte askotarako Inaxi!

Otsailaren 14an bete zenituen urteak. Horrelako irribarrearekin seguru primeran pasa zenuela eguna. Muxu handi bat etxekeon partez eta jarraitu horrela.



Zorionak! Jon eta Inigok otsailaren 18an, Luisek otsailaren 20an eta Onintzak 21ean egiten dituzte urteak. Zorionak familia osoaren partez eta ondo pasa dezagula urtebetetze egunetan.



JAIOTZAK

- **Zaira Iglesias Carrasco**
2006ko otsailaren 4an.

HILDAKOAK

- **Manuela Antonia Segurola Aguirre**
2006ko otsailaren 5ean.

ZORIONAK KARLOS ETA JOKIN!!



INAUTERI JAIA

Otsailak 25, larunbata

Goiza: haurrak nagusi

11:00 frontoian:

- umeentzako jokoak eta tailerrak
- sorpresak

Arratsaldea: kalejira

18:30 frontoian:

- Koadrilen elkartzea
- Kalejiraren hasiera

herriko trikitilariek girofuta.

21:00 Sagardotegian: Afaria

Ondoren: PARRANDA MUNDIALA!



Noaua!!



EGIN TxOTx!! sagardotegi garaian



*Txotxetik sagardoa
garatu izadiak!*

**AIALDE
BERRI**

Urtarrilaren 15tik irekita!

Santutenea, Tel.: 943 365 051 Mobila: 607 027 751



LARRE-GAIN
TOLABE SAGARDOTEGIA

Urtarriletik apirillera txotx garaia
(Astelehenera itxita)

Larre-Gain Baserria Ereñozu - Hernani
Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867



**ASTIAZARAN
SAGARDOTEGIA
IRUIN**

Betidanik hemen, denon etxetik gertu.

Urtarrilaren 9-an
irekiko dugu
tel.: 943 36 12 29



ELUTKETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena ezik.

Oztaran Bailara • URNETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81



SAIZAR
Sagardotegia

Kale Zahar Anzua, 38
20170 USUREIL
GIPUZKOA

Tel.: 943 362 228
www.sidrassaizar.com



OTEGI
Sagardotegia

Urte guztian irekita Astelehena ezik

Sollo Onoa
Baserria
Zabaleta anzua
Lasarte-Oria
Tel.: 943 365 029

